

BILBOK "RUE DE L 'AVENIR 2021" NAZIOARTEKO SARIA JASO DU SUITZAN, HIRIGUNE OSOAN 30 KM/H-KO ABIADURA EZARTZEAGATIK

- **Suitzako mugikortasun eta hirigintza adituak biltzen dituen Rue de l 'Avenir elkarte suitzarrak Bilbo aintzatetsi nahi izan du mugikortasun iraunkorra bultzatzeagatik eta trafikoaren ondorio negatiboak murrizteagatik.**
- **Alfonso Gil Bilboko Udaleko alkateorde eta Mugikortasuneko eta Jasangarritasun Saileko zinegotziak online jaso du saria.**
- **Aipamen honekin, Bilbok goraipamenak gehitzen jarraitzen du hiriko bide-segurtasunaren alde egindako apustu argiagatik, Europar Batasunaren Hiri Bide Segurtasuneko Saria eta Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak ematen duen bide-segurtasunaren merezimenduaren domina jaso ondoren.**

(Bilbo, 2021eko urrian 1a). Rue de l 'Avenir elkarteak suitzarrak Bilbo saritu du 30 km/h-ko abiadura zabaltzeagatik. Elkarte horrek modu aktiboan lan egiten du herrialde helvetikoan mugikortasun modu aktiboak sustatzeko eta trafikoa moteltzeko eta Bizkaiko hiriburu saritzea erabaki du, *"errepideak barik kaleak amesten ausartu delako. Eta hiri-eremuan abiadura moteltzeko, mugikortasun jasangarria bultzatzeko eta trafikoaren ondorio negatiboak murrizteko beharrezkoak diren tresnak hartu dituelako"*.

Ekitaldia Friburgon burutu den jardunaldi baten baitan egin da eta urtero, tokiko gobernuetako agintariak, mugikortasuneko eta hirigintzako adituak eta gizarte zibileko ordezkariak biltzen ditu, Suitzako mugikortasun-esperientzia positiboak partekatuz.

Saria online jasotzeko arduraduna Alfonso Gil Bilboko Udaleko Mugikortasun eta Iraunkortasun Saileko alkateorde eta zinegotzi ordezkaria izan da. Saria eskertu eta bilbotar guztiakin partekatu ondoren, Bizkaiko hiriburuak mugikortasun jasangarri eta osasungarriaren alde duen esperientzia eta apustua azaldu ditu.

"Bizitegi-kaletik hiri moderatura" lelopean, egunean zehar ohorezko aipamena eman zaie Suitzako esku-hartze eredugarriei. Adibidez, 2020ko aipamena Genevarako izan zen, pandemiaren garaian txirringularen alde hartutako neurriengatik. 2021ean, 40. urteurrena ospatzeko, nazioarteko esku-hartzeen aipamen berri bat egin da, eta Bilbora joan da.

"Informatu, trukatu, inspiratu". Hiru hitz horiek laburbiltzen dute Suitzian lan egiten duen Rue de l 'Avenir elkartearen motibazioa. Elkarte horrek modu aktiboan lan egiten du kalea ez dadin izan motordun zirkulaziorako gune bat, baizik eta bizitzeko leku bat, funtzio ugari dituen, eta erabiltzaile guztiei modu orekatuan leku bat ematen diena.

SARIAK

Sari honekin, Bilbok sariak pilatzen jarraitzen du, hiriko bide-segurtasunaren alde egindako apustu garbiagatik. Gogoratu behar da joan den apirilean Bizkaiko hiriburuak Europar Batasunaren Hiri Bide Segurtasunaren Saria jaso zuela, European Mobility Week 2020 sarien barruan. Sari horrek bide-segurtasunaren arloko lorpen nabarmenei eta berritzaileei tokiko agintariak egindako ekarpena saritzen du.

Arrazoi beragatik, joan den abenduan, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak (DGT) bide-segurtasunaren merezimenduaren domina eman zion Alfonso Gili, Bereizgarri Urdinaren brontzezko kategorian, 30 km/h-ko muga hiri osora zabaltzeagatik. Saria Fernando Grande-Marlaska Barne ministroaren eskutik jaso zuen.

BILBAO RECIBE EN SUIZA EL PREMIO INTERNACIONAL “RUE DE L’AVENIR 2021” POR ESTABLECER LOS 30 KM/H EN TODO EL CASCO URBANO

- **La asociación suiza Rue de l’Avenir, que reúne a expertos en movilidad y urbanismo de Suiza, ha querido reconocer a Bilbao por favorecer la movilidad sostenible y reducir los efectos negativos del tráfico.**
- **Alfonso Gil, Teniente de Alcalde y Concejal de Movilidad y Sostenibilidad del Ayuntamiento de Bilbao, ha sido el encargado de recibir de forma telemática este galardón.**
- **Con esta mención, Bilbao continúa sumando distinciones por su clara apuesta por la seguridad vial urbana, tras recibir el Premio de Seguridad Vial Urbana de la Unión Europea y la medalla al mérito de la seguridad vial que concede la DGT.**

(Bilbao 1 de octubre de 2021). La asociación suiza Rue de l’Avenir ha premiado a Bilbao por la generalización de los 30km/h en toda la zona urbana. Esta asociación, que trabaja en el país helvético activamente en aras de la promoción de los modos de movilidad activos y de la moderación del tráfico, ha decidido premiar a la capital vizcaína por *“haber osado soñar con calles en lugar de carreteras. Y por haber adoptado los instrumentos necesarios para moderar la velocidad en el área urbana, para favorecer la movilidad sostenible y reducir los efectos negativos del tráfico”*.

El acto de entrega ha tenido lugar durante la celebración de una jornada que ha tenido lugar en Friburgo, y que reúne anualmente a autoridades de gobiernos locales, a expertos en movilidad y el urbanismo, y a representantes de la sociedad civil, para compartir experiencias positivas de movilidad en Suiza.

El encargado de recibir el galardón, de forma telemática, ha sido Alfonso Gil, Teniente de Alcalde y Concejal Delegado del Área de Movilidad y Sostenibilidad del Ayuntamiento de Bilbao, que tras agradecer el premio, y compartirlo con todas las bilbaínas y bilbaínos, ha explicado la experiencia y apuesta de la capital vizcaína por una movilidad sostenible y saludable.

Bajo el lema “De la calle residencial a la ciudad moderada”, durante la jornada, se ha otorgado una mención de honor a las intervenciones ejemplares en Suiza. Por ejemplo, la mención de 2020, fue para Ginebra por las medidas pro-ciclistas adoptadas durante la pandemia. En 2021, y con motivo de la celebración de su 40º aniversario, se ha integrado una nueva mención a las intervenciones internacionales que ha ido a parar a Bilbao.

“Informar, intercambia, inspirar”. Estas tres palabras resumen la motivación de la asociación Rue de l’Avenir, que trabaja activamente en Suiza para que la calle no sea un

espacio dedicado a la circulación motorizada, sino un lugar de vida, con múltiples funciones, que brinda un espacio a todas las personas usuarias de manera equilibrada.

PREMIOS

Con este premio, Bilbao continúa acumulando distinciones por su clara apuesta por la seguridad vial urbana. Cabe recordar que el pasado mes de abril la capital vizcaína fue reconocida con el Premio de Seguridad Vial Urbana de la Unión Europea, dentro de los premios European Mobility Week 2020, que recompensa la contribución de las autoridades locales a los logros destacados e innovadores en el ámbito de la seguridad vial.

Por este mismo motivo, el pasado mes de diciembre, Alfonso Gil, fue galardonado por la Dirección General de Tráfico (DGT) con la medalla al mérito de la seguridad vial en su categoría de bronce con Distintivo Azul, por extender el límite de 30 Km/h a toda la ciudad. El premio lo recibió de manos del Ministro del Interior, Fernando Grande-Marlaska.